




EAEko BPGa %1,9 hazi zen laugarren hiruhilekoan

BPGaren bilakaera EAEn
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako aurrerapenaren arabera, **laugarren hiruhilekoan EAEko ekonomia %1,9 hazi zen aurreko urteko aldi beraren aldean**. Hori horrela, Euskadiko BPGa %2,1 hazi zen 2024ko batez bestean, aurreikusitako hazkundera (%1,9) baino pixka bat gehiago.

EAEko ekonomiaren termometroa 96,3an kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Iazko azken hilabetea, EAEko ekonomiaren termometroa 96,3an kokatu zen, hau da, 1,6 puntu jaitsi zen aurreko hilabetearen aldean, nahiz eta hazkunde leuneko eremuan mantendu den. Indizearen beherakada txiki horren arrazoia kontsumo pribatuak izan zuen tonu apalagoa izan zen. Era berean, esportazioko merkatu nagusien egoerak industria kaltetzen du.



Pertsonen trafikoa hegazkinez berriro handitu da

Aireportuetatik igaro diren pertsonak
Urte bakoitzeko urtariletik abendura. Milakoak




Iturria: AENA.

2024an, hegazkinez bidaiatu zuten pertsonen kopuruak beste marka historiko bat ezarri zuen, 7,5 milioi bidaia baino gehiago egin baitziren urte osoan. Urte arteko aldakuntza tasan, 2023arekiko igoera %5,4koa izan zen, eta jada lau urtez jarraian egin du gora.

EAEko KPI indizeak %3,6an amaitu zuen urtea

EAEko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Inflazioa %3,6an kokatu zen abenduan, azaroan erregistratutakoa baino zazpi hamarren gorago. Igoera horrekin, prezioek maitzetik izan duten mailarik handiena ezarri dute, azken hilabeteetako goranzko joera berretsiz. Bilakaera hori erregaien garestitzeak eta, neurri txikiagoan, aisialdiko eta kulturako prezioek eragin zuten, pakete turistikoaren kostuaren igoeraren ondorioz.